



**TOLOSAKO
UDALA**

TOLOSAKO UDALA.

*PLAN EKONOMIKOA 2012tik 2015era
arteko epealdirako, 2011ko ekitaldia ixtean
aurreikusten den udal aurrekontuaren egoera
aztertu eta gero*

2011ko azaroaren 9a



**TOLOSAKO
UDALA**

TOLOSAKO UDALA.

***TOLOSAKO UDALAREN AURREKONTU PLAN EKONOMIKOA, 2012-2015
EPEALDIRAKO AURREIKUSIA***

Aurkibidea

1. Dokumentu honen esparrua	1
2. Azterketa, 2011/12/31ko itxieran aurreikusten diren emaitzena	2
3. Aurreikuspenak 2012 urterako eta hurrengoetarako.....	10
4. Ondorioak	15
5. Eranskina: aurrekontuko sarreren eta gastuen zehaztapenak	18



1. DOKUMENTU HONEN ESPARRUA

Tolosako Udaleko aurreko Gobernu taldeak 2010-2013 epealdirako plan ekonomiko-finantzario bat zeukan, urte horietako udal aurrekontuen ildoak bideratzeko. Hauteskundeak eta gero, Gobernu talde berriak, udal organoen eraketa bukatu ondoren, 2012-2015 epealdirako Aurrekontu Plan Ekonomikoa egin du, ezagutzeko Udalaren aurrekontu eta ekonomia egoera eta 2012-2015 legealdirako jarduketa posibilitateak, egungo udal egitura mantentzen den heinean.

Plan ekonomiko finantzario honen helburua da aurrekontu emaitzak eskaintzea, aipatu epealdirako sarreren eta gastuen bilakaeraren gainean, Tolosako Udalak aukera izan dezan alde zuzenetik edukitzeko informazio ekonomikoa eta finantzarioa, oinarritzko premisak ezartzeko eta orekatzeko egoera bat lortu eta mantentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Egoera bati orekatua dela esaten zaio, hain zuzen ere, Udala gauza denean sortzen duen aurrezki garbiarekin behar bezain ondo finantzatzeko beharrezkoak diren inbertsioak zerbitzu publikoen funtzionamendu egokirako; eta, zorpetzera jo behar izanez gero, hurrengo ekitaldi ekonomikoetan jasotako maileguren itzulketa egin ahal izatea, beste helburu batzuetarako bideratuta leudekeen baliabideak hartarako erabiltzearen kalterik gabe.

Aipameneko plan ekonomikoa egiteko, abiapuntua 2011ko aurrekontuaren itxiera aurreikuspena da. Hortik, sarrera eta gastuen aurreikuspena proiektatuko litzateke, kontuan hartuta egungo aurrekontu egitura, hau da, gastuaren aldaketa sakonik egin gabe.

Beraz, azterketa honetan jarraituko den prozesua hurrengo hau izango da:

1. 2011ko gastu eta sarreren aurrekontu itxieraren aurreikuspena.
2. Aurrekontu proiektzioak 2012tik 2015era bitarteko ekitaldietarako.
3. Ondorioak
4. Aurrekontu sarreren eta gastuen zehaztapenak
5. Murriztu daitezkeen gastu jardueren zerrenda

Lan hau egungo hipotesi batzuen arabera egingo da, bereziki egungo egoera ekonomikoek baldintzatuta eta udal gobernu taldeak emandako arauetan oinarrituta.

Ondoren doaz, zehatzago jarrita, Plan Ekonomiko hau egiteko erabilitako irizpideak.

2. 2011/12/31KO ITXIERARAKO AURREIKUSTEN DIREN EMAITZAK



2011ko abenduaren 31n aurreikusten diren sarrera eta gastuen egoerak hurrengo aldagai hauetatik abiatuta kalkulatu dira:

2.1) 2011ko Sarreraren Aurrekontuaren Likidazio aurreikuspena

2011 ekitaldirako aurreikusitako sarreraren likidazioa, kapituluka zehaztuta, hurrengo hau da:

SARRERAK	Aurrekontua hasierakoa 2011	Aurreikuspena Likidazioa 2011	Desbiderapena Aurrek-Prelik. 2011	Aurreikuspena Exek. maila 2011
A. ERAGIKETA ARRUNTAK				
1. Zuzeneko zergak	4.667.000,00	4.920.100,00	253.100,00	105,42%
2. Zeharkako zergak	181.100,00	790.000,00	608.900,00	436,22%
3. Tasak eta gainerako sarrerak	3.847.800,00	3.948.648,00	100.848,00	102,62%
4. Transferentzia korranteak	11.736.100,00	11.305.129,00	-430.971,00	96,33%
5. Ondare sarrerak	971.000,00	1.850.675,00	879.675,00	190,59%
A BATURA:	21.403.000,00	22.814.552,00	1.411.552,00	106,60%
B. KAPITAL ERAGIKETAK				
6. Inbertsioak besterentzea	0,00	47.723,00	47.723,00	
7. Kapital transferentziak	6.000,00	1.039.611,00	1.033.611,00	17326,85%
8. Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00
B BATURA:	6.000,00	1.087.334,00	1.081.334,00	18122,23%
SARRERAK GUZTIRA:	21.409.000,00	23.901.886,00	2.492.886,00	111,64%

Sarrera kontzeptu bakoitza aztertu eta gero, lortzen dugun sarrera aurreikuspena **23.901.886** eurokoa da. Konparatuz hasierako aurrekontuarekin, **21.409.000 euro**, sarreretan superabita ateratzen zaigu, hain justu, 2.492.886 euro.

Aurreikuspen honen datu esanguratsuenak hauek dira:

- 1 kap. Zuzeneko zergak: Aurreikusitako kopurua baino 253.100 euro gehiago likidatzea aurreikusten da, besteak beste, Voith-Gorostidi zonaldeko katastro unitate berrien ondoriozko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarengatik, batez ere.
- 2 kap. Zuzeneko zergak: Eraikuntzen eta obren gaineko zergaren kontzeptuagatik aurreikusitako zenbatekoa baino 608.900 euro gehiago likidatzea aurreikusten da arrazoi hauengatik: EZ.7 Voith eremuko eraikuntza berriko obra handien lizentziak, lehengo Igarondo igerilekuko eraikuntzenak, Alondegiako etxebizitza tutelatuak, etab.
- 3 kap. Tasak eta gainerako sarrerak. Hasieran aurreikusitako kopurua baino 100.848 euro gehiago likidatzea aurreikusten da.



- 4. kap. Transferentzia korronteak: Hasieran aurreikusitako kopurua baino 430.971 euro gutxiago likidatzea aurreikusten da. Murrizketa horren arrazoi nagusia izan da Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren 2011ko likidazio aurreikuspena. Prelikidazio horrek, Finantzen Euskal Kontseiluak onartua, Tolosako Udalari ekarriko dio 850.361 euroko murrizketa, hau da, % 8,5eko murrizketa hasierako aurrekontuarekin konparatuta. Hori gertatu da Diputazioko zerga itunduen bilketan jaitsiera handia izan delako, Rover-en BEZ zati baten itzulketagatik eta kupoan izandako desoreka batzuegatik.

Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren jaitsiera hori konpentsatuko da, parte bat, aurreikusi ez ziren sarrera handiago batzuen bidez, esaterako Ibarako Udalaren ekarpena, 323.965 eurokoa, Apattako 2009-2010 epealdiaren likidazioaren kontzeptuan.

- 5. kap. Ondare sarrerak: Hasieran aurreikusitako kopurua baino 879.675 euro gehiago likidatzea aurreikusten da. Aipameneko sarrera handiago horiek hauexek dira: Tolosa Gasa SAren aparteko dibidenduak (+ 429.661euro), EZ.7 eremuko garajeen kontzesioak (+ 359.000 euro) eta banku gordailuak (+ 66.000 euro).
- 6. kap. Inbertsio errealeen besterentzea: hasieran aurreikusitako baino 47.723 euro gehiago likidatzea aurreikusten da, urbanizazio kuotak eta hirigintza aprobetxamenduak kontzeptuetan.
- 7. kap. Kapital transferentziak: hasieran aurreikusitakoa baino 1.033.611euro gehiago likidatzea aurreikusten da honako kontzeptu hauetan: Estatuaren transferentziak, 372.358 euro, 2010eko enplegu planaren gainontzeko zatiarenak; Eusko Jaurlaritzaren kapital transferentziak, 643.000 hainbat obregatik: Bidebieta, Gernikako Arbola, Samaniego ikastetxea, etab.

2.2) 2011ko Gastuen Aurrekontuaren Likidazio aurreikuspena

2011 ekitaldirako aurreikusitako gastuen likidazioa kapituluka zehaztuta hurrengo hau da:



TOLOSAKO UDALA

GASTUAK	Aurrekontua Hasierakoa 2011	Aurreikuspena Likidazioa 2011	Desbiderapena Plana-Prelik. 2011	Aurreikuspena Exek. maila 2011
A. ERAGIKETA ARRUNTAK				
1. Pertsonal gastuak	7.522.643,00	7.413.364,00	-109.279,00	98,55%
2. Ondasunak eta zerbitzuak erostea	9.814.303,00	9.780.116,00	-34.187,00	99,65%
4. Transferentzia korranteak	2.354.843,00	1.869.964,00	-484.879,00	79,41%
A BATURA PARTZIALA	19.691.789,00	19.063.444,00	-628.345,00	96,81%
Gastu finantzarioak				
3. Gastu finantzarioak	314.465,00	244.168,00	-70.297,00	77,65%
9. Pasibo finantzarioak (Amor. Maileguak)	645.746,00	680.551,00	34.805,00	105,39%
Batura Gastu finantzarioak	960.211,00	924.719,00	-35.492,00	96,30%
A BATURA:	20.652.000,00	19.988.163,00	-663.837,00	96,79%
B. KAPITAL ERAGIKETAK				
6. Inbertsio errealak	482.000,00	3.695.806,00	3.213.806,00	766,76%
7. Kapital transferentziak	275.000,00	666.599,00	391.599,00	242,40%
8. Aktibo finantzarioak	0,00	0,00		
B BATURA:	757.000,00	4.362.405,00	3.605.405,00	576,28%
GUZTIRA GASTUAK 2011 EKIT.:	21.409.000,00	24.350.568,00	2.941.568,00	113,74%
2010eko kreditu txertatuak:	5.430.486,45	4.593.342,00	-837.144,45	84,58%
GUZTIRA GASTUAK:	26.839.486,45	28.943.910,00	2.104.423,55	107,84%

- Kontuan izan dira, orain arte onartutako kreditu aldaketako lau espedienteak eta 1.000.000 euro destinatzea Elozegi parkeari buruzko aurre-akordioaren lehenbiziko ordainketari aurre egiteko.

2011 urteko gastuen likidazio aurreikuspena era honetan banatuko dugu:

2.2.1 Gastuak eragiketa arruntengatik (finantza karga baztertuta), 2011ko aurrekontukoa, 2010 ekitaldiko kreditu txertatuak baztertuta:

GASTUAK	Aurrekontua Hasierakoa 2011	Aurreikuspena Likidazioa 2011	Desbiderapena Plana-Prelik. 2011	Aurreikuspena Exek. maila 2011
A. ERAGIKETA ARRUNTAK				
1. Pertsonal gastuak	7.522.643,00	7.413.364,00	-109.279,00	98,55%
2. Ondasunak eta zerbitzuak erostea	9.814.303,00	9.780.116,00	-34.187,00	99,65%
4. Transferentzia korranteak	2.354.843,00	1.869.964,00	-484.879,00	79,41%
A BATURA PARTZIALA	19.691.789,00	19.063.444,00	-628.345,00	96,81%



- 1 kapituluko gastua, Pertsonal Gastuak, kalkulatzeko, Pertsonal Departamentuko arduradunak egindako 2011ko prelikidazioa erabili da.
- 2 eta 4 kapituluetako gastua kalkulatzeko, kontuan hartu da behin betiko aurrekontuaren batuz besteko exekuzio maila, kontzeptu ekonomikoaren mailan (hiru digitu), 2007tik 2010era bitarteko gastuen aurrekontuen likidazioei dagokienez.
- Eranskin gisara doan gastuen zehaztapenean ikus daiteke gastu kontzeptu bakoitzaren portaera.

2.2.2 Gastuak eragiketa finantzarioengatik. Karga finantzarioa

GASTUAK	Aurrekontua Hasierakoa 2.011	Aurreikuspena Likidazioa 2.011	Desbiderapena Plana-Prelik. 2.011	Aurreikuspena Exek. maila 2.011
GASTU FINANTZARIOAK				
3. Gastu finantzarioak	314.465,00	244.168,00	-70.297,00	77,65%
9. Pasibo finantzarioak (Amor. Maileguak)	645.746,00	680.551,00	34.805,00	105,39%
Batura Gastu finantzarioak	960.211,00	924.719,00	-35.492,00	96,30%

Karga finantzarioaren kalkulua egiteko Tolosako Udalaren egungo zorra hartu da kontuan.

Tolosako Udalaren mailegu zerrenda hurrengo hau da:

Entitatea MAILEGUA	ZK. KONTRATUA MAILEGUA	INDARRALDIA		MOTA INTERESA %	KREDITUAREN ZENBATEKOA		Aurreikuspena Amortizazioarena 2.011	Aurreikuspena interesak 2.011	Aurreikuspena Karga finantzarioa 2.011	Aurreikuspena SALDO BIZIA 31.12.2011
		DATA Hasiera	DATA Bukaera		Emana Hasiera	Zor bizia 2010.12.31n				
KUTXA	25.1789633.4	2.12.2005	2.12.2025	Euribor + 0,15 10 urte finkoa	7.146.000,00	6.166.369,20	371.474,52	86.826,35	458.300,87	5.794.894,68
KUTXA	25.1872101.0	15.12.2006	15.12.2026	3,99	6.900.000,00	3.540.897,18	180.842,43	140.637,70	321.480,13	3.360.054,75
Batura Kutxa :					14.046.000,00	9.707.266,38	552.316,95	227.464,05	779.781,00	9.154.949,43
Euskadiko Kutxa	284389460	29.12.2004	29.12.2019	Euribor + 0,10	1.673.000,00	1.222.459,76	128.233,53	16.703,89	144.937,42	1.094.226,23
Eusko Jauriaritza	U.etaA. Zentrala botatzea	7.08.2006	7.08.2016	Interesik gabe	30.190,65	30.190,65	0,00	0,00	0,00	30.190,65
Gobernu Zentrala	Obra, TOPIC -Txotxongil.	30.11.2008	30.11.2023	Interesik gabe	1.900.350,00	1.900.350,00	0,00	0,00	0,00	1.900.350,00
GUZTIRA MAILEGUAK					17.649.540,65	12.860.266,79	680.550,48	244.167,94	924.718,42	12.179.716,31

Karga finantzarioa areagotu egin daiteke, gehiago zorpetuz gero, hurrengo desjabetze hauetatik eratorritako zenbatekoak ordaintzeko :



- Elozegi parkearen desjabetzea:

Hauxe diote 2010eko auditoria txostenean: “Con fecha 12 de marzo de 2009 el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco emitió sentencia en contra del Ayuntamiento por la que se fijaba el justiprecio por la expropiación de unos terrenos en el importe de 9.633.616 euros, sin que el balance de situación al 31 de diciembre de 2010 adjunto del Ayuntamiento recoja provisión alguna a estos efectos. El Ayuntamiento ha presentado un recurso de casación contra dicho fallo ante el Tribunal Supremo, sin que hayamos podido obtener información suficiente que nos permita determinar el importe del pasivo para dicha entidad que, como consecuencia del resultado final del mencionado recurso, deba ser registrado.”

Gobernu taldeak negoziatu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaitik eratorritako zenbatekoa, aipatu epaiaren kontra Auzitegi Gorenera jotzeko kasazio errekurtoa amaitutzat emateko, eta demandatzailearekin adostu du guztira 8.576.068,24 euro ordaintzea hurrengo epeetan:

2006/07/28an ordaindua	576.068,24
2011/12/15	1.000.000,00
2012/06/15	1.500.000,00
2012/12/15	1.500.000,00
2013/06/15	500.000,00
2013/12/15	500.000,00
2014/06/15	500.000,00
2014/12/15	500.000,00
2015/06/15	500.000,00
2015/12/15	500.000,00
2016/06/15	500.000,00
2016/12/15	500.000,00
Guztira	8.576.068,24

- Santa Lutziako desjabetzea: epaia errekurrituta dago eta ez da aurreikusten gastu gehikuntzarik 2011n (1.000.000 €).

2.2.3 Gastuak inbertsio eta kapital transferentziengatik



TOLOSAKO UDALA

Ondoren ageri diren inbertsioak eta kapital transferentziak 2011 urteko aurrekontukoak dira. Ez daude sartuta, hortaz, 2010 ekitaldiko kreditu txertatuak.

Ikus dezagun laburpena:

GASTUAK	Aurrekontua Hasiera 2011	Aurreikuspena Likidazioa 2011	Desbiderapena Plana-Prelik. 2011	Aurreikuspena Exek. maila 2011
B. KAPITAL ERAGIKETAK				
6. Inbertsio errealak	482.000,00	3.695.806,00	3.213.806,00	766,76%
7. Kapital transferentziak	275.000,00	666.599,00	391.599,00	242,40%
8. Aktibo finantzarioak	0,00	0,00		
2011 BATURA:	757.000,00	4.362.405,00	3.605.405,00	576,28%

- 2011ko aurrekontu korronteko inbertsioen likidazioa aurreikusteko, kontuan hartu dira Obra eta Hirigintza Departamentuko arduradunaren iritzia eta aurreikuspena.

- 2011ko likidazioan aurreikusitako inbertsioak, 6. kap., laburturik, hurrengo hauek dira:

Partida	Kontzeptua	Hasier. aurrek.	Behin betiko aurrekontua	Likidazio aurreikusp.
600.01.5112	Elosegi parkearen desjabetzea	0	1.000.000	1.000.000
601.01.5112	Urbanizazio obra batzuk	120.000	60.000	59.080
601.07.5310	Obrak landa auzoetan	60.000	60.000	59.835
601.37.5112	Inbertsioa gerontologikoa EIOZ	0	119.275	119.275
601.40.5112	Zumardiaundiko obra	0	221.000	220.929
601.43.5112	Urbanizazio obra Gernikako Arbola	0	460.000	458.753
622.00.4330	Higiezinen erosketa (etxebizitz. garajeak)	0	1.288.330	1.284.925
622.01.4330	Obrak eraikinetan (Samaniego)	60.000	118.640	118.640
623.05.4350	Inbertsioa argi publikoetan	20.000	50.000	49.488
625.01.1215	Altzariak (ek.BOE, HAZ..)	20.000	131.430	131.430
625.02.1215	Bulego ekipamendua	20.000	20.000	20.000
625.03.4511	Kultur ekipamendua	15.000	15.000	15.000
625.99.5111	Bestelako ekipamendua	25.000	37.500	37.440
626.01.1215	Ekipamendu informatikoa	50.000	50.000	50.000
628.01.4512	Funtsa bibliografikoak	16.000	16.000	16.000
642.01.4320	Planeamendua	10.000	13.000	12.000
643.01.5112	Obra eta hirigintza proiektuak	66.000	66.000	43.011
	BATURA 6 KAP.	482.000	3.726.175	3.695.806

- Kapital transferentziak, 7 kap., 2011ko aurrekontu likidazioan aurreikusiak, laburtuta, hurrengo hauek dira:



TOLOSAKO UDALA

Partida	Kontzeptua	Hasier. aurrek.	Behin betiko aurrekontua	Likidazio aurreikusp.
720.01.5112	Kap. transf. Diputaziora R. Arriaran	0	181.720	0
733.01.4321	Kap. transf. Erretengibel SAri	275.000	275.000	275.000
733.01.4322	Kap. transf. Tolosa LotzenSAri	0	484.370	384.370
781.01.4511	Kap. transf. Santa Mariako organoa	0	7.229	7.229
	BATURA 7 KAP.	275.000	948.319	666.599

2.2.4 2010 ekitaldiko gastu kreditu txertatuen likidazio aurreikuspena :

Kreditu horien likidazio aurreikuspena hurrengo hau da:

Kapitulu a	Kontzeptua	Hasier. aurrek.	Behin betiko aurrekontua	Likidazio aurreikusp.
1	Pertsonal gastuak	0	351.586,46	351.000
2.	Ondas. korrent. eta zerbit. gastuak	0	194.347,54	190.000
4.	Transferentzia korranteak	0	302.045,60	300.000
	Batura Gastu korrantea:	0	847.979,60	841.000
6	Inbertsio errealak	0	4.582.506,85	3.752.342
	Batura inbertsio gasuak:	0	4.582.506,85	3.752.342
	GUZTIRA 2010EKO KREDITU TXERTATUAK:	0	5.430.486,45	4.593.342

- 1 kapituluko gastua, Pertsonal gastuak, aurretiaz erretiratutako hiru udal langileren indemnitzazio kostuari dagokio.
- 2 eta 4 kapituluetakoko kredituak 2010eko abenduaren 31n exekuzioan geratu ziren gastuei dagozkie.
- Daukan inportantziagatik, ondoren dator inbertsio kredituen laburpena:



**TOLOSAKO
UDALA**

Partida	Kontzeptua	Hasierako aurrekont.	Behin betiko aurrekontua	Likidazio aurreikusp.
	2006ko kredituak:			
643.01.5112	Amaroz auzoko obra proiektua	0	31.320,00	0
	2007ko kredituak:			
622.16.4330	Obra, Topic.Ordainsariak.XIark	0	66.532,11	66.532
643.01.5112	Proiekt. ordains. lurperatzea, Renfe	0	30.000,00	10.000
	2008ko kredituak:			
642.01.4320	Planeamendua, auzoak.	0	113.290,40	96.000
	2009ko kredituak:			
601.24.4412	Aldabatxikiko ur depositua- obra.	0	32.964,36	32.964
601.40.5112	Zumardiaundiko obra	0	702.323,75	702.324
601.41.5112	Zeharkako kaleetako obra	0	20.000,00	0
609.01.5112	Obra, Emeterio Arrese parkea	0	120.000,00	120.000
622.16.4330	Obra, Topic, ordainsariak	0	11.600,00	11.600
642.01.4320	Planeamendua, San Esteban	0	56.000,00	6.000
643.01.5112	Proiekt. ordains. orden.urban. Eraik.	0	8.112,50	8.113
	2010eko kredituak:			
601.02.5112	Asfaltatze obrak	0	397.459,00	310.607
601.07.5310	Obrak landa auzoetan	0	6.329,52	4.346
601.24.4412	Ur depositua eta bestelako obrak Bedaio	0	456.000,00	120.000
601.39.5112	Obrak, enplegu laguntzako plan estatala	0	371.688,15	371.442
601.40.5112	Zumardiaundiko obra	0	94.846,47	94.846
601.42.5112	Obra, urbanizaz. Bidebieta auzoa	0	323.124,00	253.289
609.01.5112	Obra, Emeterio Arrese parkea	0	180.000,00	175.884
622.01.4330	Obra, Beotibar pilotalek. komunak	0	57.327,82	57.328
622.01.5310	Obra, Bedaioko Nagusi etxea eraikina	0	115.000,00	40.000
622.19.3221	Obra, Lehiberri eraikina	0	897.520,58	780.000
643.01.5112	Proiektua, ur depositua Bedaion	0	17.700,00	17.700
	BATURA 6 KAP. Kreditu txert.	0	4.582.506,85	3.752.342

2.3 2011ko Aurrekontu Emaizaren aurreikuspena :

2011ko Aurrekontu Emaizaren aurreikuspena, laburtuta, hurrengo hau da:

	Aurrekontua Hasiera 2011	Aurreikuspena Likidazioa 2011	Desbiderapena Aurrek-Prelik. 2011	Aurreikuspena Exek. maila 2011
SARRERAK GUZTIRA:	21.409.000,00	23.901.886,00	2.492.886,00	%111,64
GUZTIRA GASTUAK 2011 EKIT.:	21.409.000,00	24.350.568,00	2.941.568,00	%113,74
2010eko kreditu txertatuak:	5.430.486,45	4.593.342,00	-837.144,45	%84,58
GUZTIRA GASTUAK:	26.839.486,45	28.943.910,00	2.104.423,55	%107,84
AURREKONTU EMAITZA		-5.042.024,00		



Taulan ikus daitekeenez, 2010eko kreditu txertatuetatik 2011n aurreikusten da gastuak likidatzea, 4.593.342,00 euroko zenbatekoaz, gastu osoa handituz eta **5.042.024,00** euroko **aurrekontu defizit** bat sortuz. Kopuru hori estali ahal izango da aurreko ekitaldietako diruzaintzako gerakinarekin (diruzaintzako gerakina 2010/12/31n 8.496.656 eurokoa zen). Ondorioz, 2011ko abenduaren 31rako aurreikusten den diruzaintzako gerakina 3.454.631 eurokoa besterik ez da.

2012tik aurrera Kontuhartzaitzako Departamentuak aurkeztuko du, bi hilabetetik behin, Aurrekontuaren segimenduaren azterketa. Han sartuko dira, batetik, sarrerak (onartutako eskubideak eta likidazio aurreikuspena) eta, bestetik, gastuak (baimendutako gastuak, onartutako betebeharrak eta kreditu erabilgarriak), hiru multzotan banatuta (1., 2. eta 4. kapitulua; 3. eta 9. kapitulua; eta 6., 7. eta 8. kapitulua), hain zuzen ere, egindako aurrekontua tresna eragingarria izan dadin gastua kontrolatzeko eta bidezko zuzenketak egiteko Plan ekonomiko-finantzarioari, bilakaera ekonomikoak hala eskatuz gero. Horrela lortu nahi dena da Plan ekonomiko-finantzarioa tresna dinamiko eta gardena izatea, egoera ekonomikoa, orokorra eta Tolosako Udalarena, kezkarria den garai honetan.

3. 2012 ETA HURRENGO URTEETARAKO AURREIKUSPENAK.

2012tik 2015erako Ekonomia Planean lortutako behin behineko aurrekontu egoerak egin dira, alde batetik, izaera orokorreko zenbait hipotesi kontuan hartuz, ondoren zerrendatuko direnak, eta, bestetik, aurrekontuetako diru-sarrerekin eta gastuekin zerikusia duten beste hipotesi batzuk.

Zalantzarik gabe, txosten hau argitara eman ondoren, eta nola edozein proiektzio ekonomikorik eta finantzarioak gutxi gorabeherako kalkulua eskatzen duen, ezarri diren ustezko datuak ez dira beharbada beteko eta, era berean, beste egintza eta egoera batzuk ere gerta litezke.

Hartu diren izaera orokorreko hipotesiak hauek dira:

- **Plan Ekonomikoaren denborazko muga:** Plan honek Tolosako Udalaren aurrekontuetako diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak hartzen ditu kontuan 2012tik 2015erako ekitaldietarako, bi urte horiek barne direlarik. Proiektatu behar den epearen hasierako egoera izango da 2011ko abenduaren 31rako aurreikusitako aurrekontu egoera.
- **Kontsumo Prezioen Indizea:** 2012 urterako kontsumo prezioen igoera (KPI) %2,85ekoa izango dela estimatu da eta 2koa gainontzeko urteetarako.
- **Proiektatutako diru-sarreraren eta gastuen ezaugarriak:** proiektzio hipotesiak, funtsean, aurrezki garbia osatzen duten aurrekontuetako diru-sarreraren eta gastuen atalei buruzkoak izango dira. Egindako Planak ez du aurreikusten gastu arrunteko proiektu berriak sartzea, non eta horiek ez badira orekatzen kopuru eta izaera bereko diru-sarrez.



2012 urterako aurreikuspenari erantsi zaio 2011 urtean egin ez diren baina aipatu 2012ko ekitaldi horretan sartuko diren gastuen exekuzioa.

Bestalde, suposizio hau ere ezartzen dugu: 2012 urtetik 2015 urterako epean inbertsio errepikariak direnak bakarrik egingo direla (ohiko gastu kopurua ekartzen dutenak). Baldin eta inbertsio berriak sartzen badira, inbertsio horiek izan behar dute beren finantziazio propioa, dela inbertsioak besterendurik, dela kapitalaren transferentzien bidez, edo egin litezkeen bestelako finantziazio batzuen bidez.

Zentzu horretan, aztertuko da aukerarik ba ote dagoen diru-sarreraren bat lortzeko, azterketa honetan sartutakoak baino handiagoak, dela besterentzeen bidez, edo hirigintza jardueren edo kapital laguntzen bidez. Horrek modua emango lioke Erakundeari inbertsioak egiteko proiektatutako epean emandako diru kopururaino.

Era berean, ez da aurreikusten gasturik edo diru-sarrerarik egingo denik finantza aktiboei dagozkien kapituluetan.

Azkenik, ez da aurreikusi proiektatutako epean zehar Udalak inongo kapital transferentziarik emango duenik ere, ez bada udal enpresentzat edota Iurramendi Egoitzarentzat (aipatutako epe horretan udal gestiopekoa izaten jarraituko duela suposatuta)

Desjabetzeak: finantza eta ekonomia plangintzak kontuan hartzen du Elozegi Parkearen desjabetzea dela eta hitzartutako ordainketa plana. Ez da kontuan hartzen, ordea, Santa Lutziako lursailen desjabetzeari dagokion epaiaren eragina, aipatu epai hori behin betiko egiten ez den bitarte.

Elozegi parkearen desjabetzeari buruzko hitzarmenaren aplikazioak ondorio hauxe dakar:

- 2011 urtea 1.000.000 €
- 2012 urtea 3.000.000 €
- 2013 urtetik 2016 urtera, 1.000.000 €urte bakoitzeko.

- **Zorpetze berria:** Egin behar diren inbertsio berriak ezin badira finantzatu aurrezki arruntaren bidez, edo gerakinaren bidez edo kanpoko transferentzien bidez –kasu horietan bakarrik- zorpetze berri batera joko da, baina horretarako adostasun handia beharko da.

3.1) Diru-sarreraren aurreikuspena

- Zergak eta tasak direla eta 2012 urterako dagoen diru-sarreraren aurreikuspena kalkulatu da KPIIn %2,85eko igoera aurreikusiz, hiri hondakinak jasotzeagatik tasan izan ezik, tasa horrentzat %5 igoera baitago aurrekontuetan.



- Hurrengo urtetarako, alegia, 2013, 2014 eta 2015 urteetarako aurreikusi den diru-sarreren igoera da %2 urteko.

- Eraikuntzen gaineko zerga dela eta, (IEOZ), ez da aurreikusi promozio berriko lizentzia handirik emango denik. Kontuan hartu dira, aldiz, Voith eremuko zein Bista Alai S.A. enpresaren etxebizitzak eraikitze lizentziaren behin betiko likidazioak. Hori dela eta, 2012 urterako 180.000 € ko diru-sarrerak aurreikusi dira.

- Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren diru ekarpena aurreikusi da, 2012 urterako, %6,31ko igoerarekin 2011ko aurrelikidazioaren gainean, Aldundiak berak eman digun irizpideari jarraituta. Egindako aurreikuspenak honako hauek dira:

- 2011 urtea: Hasierako aurrekontua 10.166.366, 64 €
- 2011 urtea: 2011 urteko aurrelikidazioa FEK: - %8,48ren gainean, 2011 hasierako aurrekontuaren gainean = 9.304.539 euro.
- 2012 urtea= 2011ko aurrelikidazioa + %6,31 = 9.891.464 euro.
- 2013 urtea eta hurrengoak: %2ko igoera urteko.

- Tolosa Gasaren dibidenduak: egokitu dira Comisión Nacional de la Energía (CNE) delakoak ezarritako ordainsari berrietara, eta horrek %50 baino handiagoko emaitzaren beherakada ekarri du. 2012 urterako 175.000 euro aurreikusten dira.

- Tolargi S.L.-ren dibidenduak: 2012 urtetik aurrera soziedadearen dibidenduko diru-sarrera bat aurreikusten da kopuruak hurrengo urteetan gero eta handiagoak direlarik.

- Tolargi S.L.-ren alokairuak: aurreikusita dago 2012 urtetik aurrera fakturatzea San Estebango azpiestazioaren eta Unipapeleko eraikinaren alokairu gisa.

- Kapital sarrerak: bakar-bakarrik sartu da aurrekontuetan Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza finko hau: Funts bibliografikoak erosteko laguntza.

3.2) Gastuen aurrekontua

a) 2012 urteko Gastuen Aurrekontua egiteko erabili diren irizpideak.

Abiapuntua izan dira Gobernu taldeak ezarri dituen irizpideak, honako hauek, hain zuzen ere:

- Gaur egun dagoen gastu mailari eustea.
- 1. Kapitulua. Pertsonal gastuak: irizpidea da 2011 urteko behin betiko Aurrekontuko kredituei eustea (4/2011 Zki.dun esp.), Udaltzaingo, Kultura eta Ingurumen departamenduetan lanpostu bana deuseztatzea eta Korporazioaren aholkulariaren lanpostua jornada osora zabaltzea. Horrela lortuko den aurrezkiak modua emango du datorren lan hitzarmena aplikatzeko, aurreikusita baitago ordainsarrietan %2,80ko igoera izango duela.

- 2. Kapitulua. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak. Hauxe izan da erabilitako irizpidea:



TOLOSAKO UDALA

- Funtzionamenduari dagozkion gastuak: 2011ko kredituei eustea.
- Azpikontratei dagozkien gastuak: 2011ko behin betiko kredituak %2,50 handitzea eta aztertzea ea posible ote den kentzea kanpoko aholkulari bat kontratatzeak dakarren gastua.

- 3 eta 9. Kapituluak: Interesen eta amortizazioaren finantza karga: indarrean dagoen mailegu bakoitzeko kalkulu zorrotz bat egin dugu, Euriborren aurreikuspenei %2,5-ko interesa aplikatuz. Era berean, aurrekontuetan hartu da aurreneko aldiz Eusko Jurlaritzak Topic-en obrarako emandako interesik gabeko maileguaren amortizazioa. 2012 urterako finantza karga honako hau izango litzateke: 1.134.146 euro.

- 4. kapitulua, transferentzia arruntak: erabilitako irizpidea hau izan da:

- 2011ko Aurrekontuko behin betiko kredituei eustea (4/2011 zenbakidun txostena)
 - Gutxitzea Tolosako Udalak Tolosa Lotzen S.A.-ri egiten dion ekarpena 100.700 euroan udal sozietate horren egitura berregokitzeagatik. Diru kopuru horren barne dago kanpoko aholkulariaren gastua eta sozietatearen beste gastu batzuk.
- 6 eta 7 kap.: inbertsioei dagokienez 2011 urteko hasierako kredituak besterik ez da sartu aurrekontuetan, horiek baitira inbertsio errepikariak, eta Elozegi parkearen desjabetzea dela eta lehen aipatu ditugun diru kopuruak. Ez da proiektu berririk sartu.
- Aipatutako irizpide horiekin egindako 2012 urterako gastuen aurreikuspenari gastuen handitzeak gehitu zaizkio 1.000.000 euroko kopuruan; aurreikusita dago horiek ekitaldi horretan eranstea, ez baitira egin aurreko urtean, hau da, 2011n. Honela egin da kopuru horren banaketa kapituluetan:
- 2. Kap. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.....100.000 €
 - 4. Kap. Transferentzia arruntak100.000 €
 - 6. Kap. Inbertsio errealak 600.000 €
 - 7. Kap. Kapital transferentziak 200.000 €

Guztira 1.000.000 €

b) 2013tik 2015rako aurrekontuetan erabilitako hipotesia:

Aurreikusi da gastu maila eguneratzea urte bakoitzeko %2ko kontsumo prezioen indizea (KPI) erabiliz.

Arestian deskribatutakoaren ondoren, ondoren, aurrekontuaren zehaztasunak azaltzen dira, kapitulu mailan, 2012tik 2015erako ekitaldietarako aurreikusten diren diru-sarrerena zein gastuena.

Kapituluen araberako laburpena hau da:



**TOLOSAKO
UDALA**

SARRERAK	Likidazioa	Aurrekontua	Aurreikuspena	Plan	Plan	Plan	Plan
	2010	Hasierakoa	Likidazioa	Ekonomikoa	Ekonomikoa	Ekonomikoa	Ekonomikoa
		2011	2011	2012	2013	2014	2015
A. ERAGIKETA ARRUNTAK							
1. Zuzeneko zergak	4.700.029,80	4.667.000,00	4.920.100,00	4.927.800,00	5.026.356,00	5.126.883,00	5.229.420,00
2. Zeharkako zergak	335.765,20	181.100,00	790.000,00	180.000,00	183.600,00	187.272,00	191.017,00
3. Tasak eta gainerako sarrerak	4.334.344,22	3.847.800,00	3.948.648,00	3.899.516,00	3.977.965,00	4.057.705,00	4.138.598,00
4. Transferentzia korranteak	12.772.230,48	11.736.100,00	11.305.129,00	11.272.764,00	11.498.219,00	11.728.182,00	11.962.746,00
5. Ondare sarrerak	1.104.828,69	971.000,00	1.850.675,00	1.113.920,00	1.151.940,00	1.195.221,00	1.238.766,00
A BATURA:	23.247.198,39	21.403.000,00	22.814.552,00	21.394.000,00	21.838.080,00	22.295.263,00	22.760.547,00
B. KAPITAL ERAGIKETAK							
6. Inbertsioak besterentzea	584.436,58	0,00	47.723,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Kapital transferentziak	3.026.178,68	6.000,00	1.039.611,00	6.000,00	6.120,00	6.242,00	6.367,00
8. Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
B BATURA:	3.610.615,26	6.000,00	1.087.334,00	6.000,00	6.120,00	6.242,00	6.367,00
SARRERAK GUZTIRA	26.857.813,65	21.409.000,00	23.901.886,00	21.400.000,00	21.844.200,00	22.301.505,00	22.766.914,00

GASTUAK	Likidazioa	Aurrekontua	Aurreikuspena	Plan	Plan	Plan	Plan
	2010	Hasierakoa	Likidazioa	Ekonomikoa	Ekonomikoa	Ekonomikoa	Ekonomikoa
		2011	2011	2012	2013	2014	2015
A. ERAGIKETA ARRUNTAK							
1. Pertsonal gastuak	7.604.362,60	7.522.643,00	7.764.364,00	7.340.049,00	7.486.851,00	7.636.587,00	7.789.319,00
2. Ondasunak eta zerbitzuak erostea	9.840.265,73	9.814.303,00	9.970.116,00	10.080.660,00	10.282.273,00	10.487.921,00	10.697.680,00
4. Transferentzia korranteak	2.590.135,50	2.354.843,00	2.169.964,00	2.015.550,00	2.055.861,00	2.096.978,00	2.138.917,00
A BATURA PARTZIALA	20.034.763,83	19.691.789,00	19.904.444,00	19.436.259,00	19.824.985,00	20.221.486,00	20.625.916,00
GASTU FINANTZARIOAK							
3. Gastu finantzarioak	225.315,07	314.465,00	244.168,00	319.791,00	298.958,00	277.451,00	255.245,00
9. Pasibo finantzarioak (Amortiz. Mailegua)	904.353,21	645.746,00	680.551,00	814.355,00	834.903,00	856.115,00	908.205,00
Batura Gastu finantzarioak	1.129.668,28	960.211,00	924.719,00	1.134.146,00	1.133.861,00	1.133.566,00	1.163.450,00
A BATURA:	21.164.432,11	20.652.000,00	20.829.163,00	20.570.405,00	20.958.846,00	21.355.052,00	21.789.366,00
B. KAPITAL ERAGIKETAK							
6. Inbertsio errealak	6.974.041,58	482.000,00	7.448.148,00	3.482.000,00	1.491.640,00	1.501.472,00	1.511.500,00
7. Kapital transferentziak	509.340,84	275.000,00	666.599,00	275.000,00	425.000,00	425.000,00	425.000,00
8. Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
B BATURA:	7.483.382,42	757.000,00	8.114.747,00	3.757.000,00	1.916.640,00	1.926.472,00	1.936.500,00
GASTUEN BATURA:	28.647.814,53	21.409.000,00	28.943.910,00	24.327.405,00	22.875.486,00	23.281.524,00	23.725.866,00
2012 ekitaldiari xertatzeko kredituak				1.000.000,00			
GUZTIRA GASTUAK:	28.647.814,53	21.409.000,00	28.943.910,00	25.327.405,00	22.875.486,00	23.281.524,00	23.725.866,00
AURREKONTU EMAITZA :	-1.790.000,88	0,00	-5.042.024,00	-3.927.405,00	-1.031.286,00	-980.019,00	-958.952,00



MAGNITUDEAK

LABURPENA	Likidazioa 2.010	Aurrekontua Hasierakoa 2.011	Aurreikuspena Likidazioa 2.011	Plan Ekonomikoa 2.012	Plan Ekonomikoa 2.013	Plan Ekonomikoa 2.014	Plan Ekonomikoa 2.015
Aurrekontu emaitza	-1.790.000,88		-5.042.024,00	-3.927.405,00	-1.031.286,00	-980.019,00	-958.952,00
Aurrezki gordina	3.212.434,56	1.711.211,00	2.910.108,00	1.757.741,00	2.013.095,00	2.073.777,00	2.134.631,00
Aurrezki garbia	2.082.766,28	751.000,00	1.985.389,00	623.595,00	879.234,00	940.211,00	971.181,00
Kapital superabita / defizita	-3.872.767,16	-751.000,00	-7.027.413,00	-4.551.000,00	-1.910.520,00	-1.920.230,00	-1.930.133,00
Diruzaintzako gerakin gordina	9.927.396,93		4.885.372,93	957.967,93	- 73.318,07	- 1.053.337,07	- 2.012.289,07
Diruzaintzako gerakin likidoa	8.496.655,55		3.454.631,55	- 472.773,45	- 1.504.059,45	- 2.484.078,45	- 3.443.030,45

4. ONDORIOAK

Azaldutako irizpideen arabera hartutako premisei jarraituz kalkulaturako aurrekontu likidazio prebisionaletatik hurrengo ondorio hauek ateratzen dira:

- 2011 ekitaldirako aurreikusten den aurrekontu emaitza negatiboa izango da 5.042.024 euroan. Horrek inplikutzen du defizit hori finantzatzen dela 2010eko abenduaren 31ko Diruzaintzako Gerakinarekin.
- Proiektaturako epealdiko aurrekontu emaitza prebisionalak negatiboak dira. Aurrekontu emaitza horrek, funtsean, izaera arrunteko aurrekontuaren emaitza zentzua du; izan ere, aurreikusitako aurrekontuetan sartzen diren inbertsio bakarrak errepikari motakoak dira, Elosegi parkearena izan ezik.
- Diruzaintzako gerakin likidoa proiektaturako 2011-2015 epealdirako nabarmen murrizten da. 2010eko abenduaren 31n 8.496.655 eurora iristen zen, 2011.12.31n aurreikusten da 3.454.631 eurora jaitsiko dela, eta 2012tik aurrera diruzaintzako gerakin likidoak negatiboak izango dira.
- Aztertutako epealdiari dagokionez, aurrezki garbia handitu egingo da, baina zertxobait besterik ez. Horrek mugatu egiten du inbertsio berriak egin ahal izateko finantziario propioa edukitzeko aukera. Ildo horretatik, inbertsioen finantziario ahalmena, errepikariak barne, 3.414.221 eurora mugatzen da 2012-2015 epealdirako (lau urterako). Eta hala ere, epealdi horretarako 10.336.612 euroko inbertsioak aurreikusi dira (6 eta 7 kapituluaren baturak). Hortaz, inbertsioen finantziarioan defizit bat daukagu: 6.922.391 euro.



- Igoko balitz aipatu epealdian gauzatu beharreko inbertsioen maila, baliabide berriak lortu beharko lirateke. Kreditu eragiketa berrietara joko balitz, lortutako aurrezki garbia murriztu egingo litzateke.

Kontuan hartu behar da, hain zuzen ere, egindako gastu aurreikuspenak egungo udal egituraren arabera direla. Ezinbestekoa da neurriak aztertzea eta hartzea, epe labur eta ertainean sarrera korronteez igotzeko eta funtzionamendu gastuak eta finantza karga murrizteko.

Era horretan, aurrezki arrunta handitzen bada, horrekin finantzatu ahal izango dira aurreikusi gabeko gastuak epe labur edo ertainean.

Egungo egituraren gastuen murrizketak inplikatzeko du aurreikuspenak egin behar direla, hain justu, behin aztertu eta gero egungo udal jarduerak eta zerbitzuak, denak eta banan-banan, emateko komenigarritasuna.

Era berean, jarduera eta zerbitzu horietan guztietan berrikusi behar da gaur egun konprometituta daukaten udal baliabideen intentsitatea, eta seriozki aintzat hartzea aipameneko intentsitate hori birplanteatzeko aukera, aipameneko aurrezkiak lortzeko.

Kapital gastuei dagokienez, inbertsioak kontsignatzeko hurrengo ekitaldietan, lehentasuna eman behar zaie gauzatzeko orduan beren finantziario oso edo partzial propioa daukatenei (kapital transferentziak edo bestelakoak). Ondorioz, esanda bezalako finantziarioa ez daukaten inbertsio guztiak atzeratu egin behar dira beste baliabide batzuk edo handiagoak lortu arte, edo maileguak eskatzen badira, adostasun politiko handi baten bidez lortu beharko lirateke.

Kapital gastu osoa finantzatzeko, Udalak jo lezake, hala badagokio, beste eskubide batzuk likidatzera:

